

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko otsailaren 27a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Iruñea • Euskararen asteak eginen dituzte bi unibertsitateetan.

Marta Mendia • Altuera jauzian oraindik goia jo ez duen atleta.

Aralar



• LUIS AZAVZA

Mikel Deunaren

zaharberritzea

Aralarko gainean dagoen Mikel Deunaren elizak beste itxura bat dut. Orain arte hezetasunaren eta itokinen ondorioz «hilzorian» bazegoen ere, bere onera itzuli dute Principe de Vianak aginduta Zubillaga enpresak egindako zaharberritze lanek. Bederatzi hilabete itxirik egon ondoren, etzi zabalduko ditu berriro atak.



Iruñea • Kultur hamabostaldi bateratua unibertsitateetan

Unibertsitate publikoko eta pribatuko euskara taldeek batera egingen dute

Orain arte bi euskal aste zirenak kultur hamabostaldi bateratua izanen dira aurrerantzean; izan ere, NUPeko eta Nafarroako Unibertsitateko euskara taldeek beren ekitaldiak bateratzea erabaki dute.



Txomin eta Urbil Artola aita-emeek kontzertua eskainiko dute asteazken arratsaldean, Nafarroako Unibertsitateak antolatuta. GETXO FOLK

AURREKO URTEETAN BAKOITZA bere aldetik ibili ondoren, aurreko, lehenengoz, indarrak bateratu egingo dituzte Nafarroako bi unibertsitateetako euskara taldeek. Bi taldeen artean lehenik ere izan da horrelako satorik, baina orain arte ezinezkoa izan da. «Nahiz eta batzuen eta beste- en egoera desberdina izan, helburua bera da, eta bien indarrak bateratuz indar handiagoa lortzen da; beraz, egin genezakeen gauzarik hoberena egin dugu», dio Asier Azpilikuetak, Nafarroako Unibertsitateko euskaldunak biltzen dituen Abarrots taldekoa. «Inondik ere, gure egoera zaila- goa da, baina euskarak Iruñean duen egoera beti hobetu ahal da; beraz, egindako saio guztiak ez dira inoliz nahikoa izango», dio Asier Azpilikuetak.

Kultur hamabostaldiaren aurkezpena eta amaierako manifestua batera egingo dute bi euskara taldeek, baina gainerantzeko

ekitaldiak bakoitzak bere aldetik antolatuko ditu. Horrela, Abarrots-ek astelehen honetan hasiko du Euskal Astea, zeinak dagoneko oihartzun handia hartu baitu. Txalaparta jotzen ikasteko aukera eskainiko duen taller batekin hasiko dute astea. Hauek dira, besteak beste, Abarrots Euskara Taldeak antolatutako ekitaldiak: dantzarien emanaldiak, Xabier Amoros San Telmo museoko zuzendaria eta Patxi Ezkiaga idazlearen hitzaldiak, Ikerfolk taldearen folklore ikerketen berri emateko ekitaldia, euskararen batasunari buruzko bideo emanaldia, mendi diapositibak eta bertso saio bat. Azpimarragarria da, gainera, astearte arratsalderako Iruñeko Planetarioan antolatu duten Esne Bideari buruzko emanaldia. Gutxitan izan ohi da plane-

tarioan euskarazko emanaldirik, eta horregatik erabaki dute ekitaldi berezi horretarako gonbita iruindarrei zabaltzea. Berezia izanen da Txomin eta Urbil Artola aita-emeek asteazken arratsaldean emango duten kontzertua ere. Bestelako emanaldi bat ere izango da ostiral gauean, rock kontzertua izango baita aste- ari amaiera emateko.

Unibertsitate pribatukoak bukatu bezain laster, publikoak hasiko da. Martxoaren 9an hartuko dute lekuko NUPekoak. Besteak beste, egunero, 16:00etan, pelikula bat eskainiko dute, denak ere euskaraz. *Wanda izeneko arraina* eta *Azken mohikanoa* film ezagunak izango dira ikusgai. Ekitaldi franko izango dira bost egunez: Iruñe Ibarra grafologaren hitzaldia, euskal selekzioari buruzko

mahal-ingurua, ostegunean eta ostiralean dantza ikastaroa... Eta, nola ez, azken urteotako ohiturari jarraituz, Mus Inustura Txapelketa izango da egunero. Ohitura handikoa da ostiraleko euskal jaia ere: besteak beste, zantantzarrak, kalejira, euskal jotak eta dantzaldiak izango dira festa arrakastatsu horretan. Urteroko kontuak bakarrik ez, kontu berriak ere izango dira. Ostegunean, Hemendik At taldearen kontzertua izango da. Zenbait DJ ere izango dira.

Beraz, bi unibertsitateetako ikasle euskaldunek antolatutako ekitaldi ugari izango da hamabostaldi honetan, betiere gure lurraldeko unibertsitate giroa, egun batzuetan behintzat, euskalduntzeko.

→ Urko Aristi

Bera • Mendi bizikleta ibilaldia igandean

IGANDEAN KORRITUKO DA Bera-ko bederatzigarren mendi bizikleta ibilaldia. Antzina bezala, aurreko Gure Txokoa Elkarteak antolatu du, eta bi ibilbide izanen dira. Ibilbide bat zein bertzea azken urteotako berak dira, Ibilaldia goizeko 09:00etan hasiko da lamoteneatik eta Zalain auzotik goiti Postas aldera joko du. Handik Ibardinera joanen da, eta usategietan barrena Lizuniagara agertuko da. Ibilbide laburreneko txir- rindulariek beheitirako bidea hartuko dute, lamotenean bukatzeko. Nagustienak, aldiz, Lizuniagatik Santa Barbara aldera igoko dira, eta handik hartuko dute helmugarako bidea. Ibilbide batean zein bertzean bidegurutzetan jendea egoteaz gainera frutaz, janariz eta edariz hornituta- ko mahaiak prestatu dituzte.

Mendi Bizikleta ibilaldia ez da lasterketa, jende guztiari irekitako proba baizik. Dauden sariak partehartzaile guztien artean zozketatuko dira bukaeran, eta tartean 100.000 pezetako balioa duen bizikleta zozketatuko da (4.000 libera), bertzelako kirol materialekin batera.

Partehartzaileek proba hasi baino lehen eman beharko dute izena, lamotenean. Izena ematearekin bat, proban zehar jan- edatekoak banatuko dira.

Gure Txokoa Elkarteak proba aitzinera ateratzeko Berako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du; Berako merkataria eta lantegiek ere bere laguntza eskaini dute.

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Mapa mutu hauetara ager bat edo beste egin duenak badaki nekazari ezjakin, etxekoandre hipokondriako eta beste- ren solas hutsalen aldeko agertu naizela askotan. Ezjakin modernoak ez dlo zeruari erreparatzen, eta harro adieraziko dizu ez duela eguraldiaz hitze- giten.

«Oso ongi mintzatzen da», entzun izan dut txiki- tatik. Urteak behar izan ditut zer esan nahi duten ulertu ahal izateko. Entzulearen mira eta harridura horien atzean esanahi bat baino gehiago izan dai- tekeela pentsatuko du norbaitek. Nik, ordea, egi- nen nuke gehienetan zera adierazi nahi dela: «Nik ulertzen ez dudun moduan mintzatzen da».

Sinesmen eta inkognita asko esplikatzen ditu horrek. Esplikatzen du zergatik dagoen hain argi gutxi eizetan eta zergatik diren hain altu pulpitoak,

zergatik aipatzen den gero eta gehiagotan magia, baina ez Tamaritena, bestea baizik. Zera hori. Oi, zein giro magikoa, zein leku magikoa, zein presen- tia magikoal

Etorri haundikoa mintzaten ari den bitartean ez diogu eskuetara begiratzen. Siliabak behar dira, hitzeko lau edo bost baldin badira hainbat hobe. Eskuak eta mihia dantzan dituzten bitartean ezerk ez die huts egingen. Tomeoak izanen dira legebil- tzarrean, legearen zokostan sartuak egingen dituzte, eta kazetariek ezerezaren eta albiste baka- rren inguruko ariketa amaigabea jarraituko dute... Oso ongi mintzatu behar da, bai, etorri haundikoa izan behar ados ez daudela eta edozein gauza gertatu ahala jakinen dugula sinestarazteko.

Etsalak ere badituzte. Sanoa dago hor, ustez beste muturrean. Sanoaren bunkerrak oihuz eta

algaraz beterik dagoela dirudi, eta oso ongi egingen du itxura buruz ikasitako esaldiei esker: «Naturala izan behar da, gauzak etortzen diren bezala bota behar dira, eta gogoko ez duena izorra dadila». Sanoak uste du txorakeriak alde batera utzi behar direla, ulertzen den edozein hitzak balio duela, hitz bihurriagoetara jo gabe garbi esan behar direla kontuak.

Sanoak ez du, ordea, inoliz zehazten zer esan, galdetu, eskatu edo proposatu behar den. «Jode, ba hori». Dudarik gabe.

Hitzaren magoak ere ezin du dudarik egin. Erre- gea beztitua dago, jantzi ederrez, gainera. Haurra falta zaigu. Galdera egingen ausartuko den haurra, «zer esan nahi ote du?» galdetu beharrean «zer esan du?» galdetzen duena. Haurra behar dugu, baina gero eta gutxiago jaltzen dira.

Etorria



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Lemiziko phredikua

Nora goaz hiltzen garenean? Antza denez ziberespaziora. Akabo Zeruak, Ganges, Walkiriak, Labezomorroen Berpizkundea eta gainerako teoriak. Ziberespaziora. Eta ez da txantxa merkea: *Nature* aldizkariari igorri diodan entsegu zientifikoa baieztatzen dudana bezala, hona hemen probak.

1) Zeharo demostratua dago nire izeba orain dela hamabi urte hil zela.

2) Nafarroako kutxiak bere izenean gaur gutun bat ailegatu da buzoira. Gutuna guztiz fisikoa da. Zientzialariek ukitu, pisatu eta ikertu dezaten ongi gordeta daukat. Mezuan izebari komentatzen diote ordenagailu berriak erosi dituztenez bi egun emango dituztela makinaren aldatketan eta barkatzeko itxirik egongo diren bi egun horietan sor daitezkeen trabak.



3) Egin dezakegun dedukzio bakarra (zientifikoki eta probatutzat eman dezakeguna), nire izeba ordenagailuen barruan oraindik existitzen dela da. Hau da: hil eta ziberespazioan dabilela. (Niri behintzat hipotesi errazena iruditzen zaizkigu. Noski, egongo dira beste batzuk hau ez dela guztiz zehatza esango dutenak. Aipatuko dute orduan mamuen kontua, edo berpizkundera edo katoliko-en infernua eta ordenagailuen asuntua bigarren plano batera pasako dute esanez «izeba ez dela berez ordenagailuaren barruan existitzen, baizik eta makina erabiltzen duela soilik nirekin kontaktu misterioz burutzeko». Txorakeriak. Joko teologiko merkeak!)

Badakit niretzat pauso txiki bat izan dena giza osotasunarentzat izugarriko saltoa izango dela. Ohartzen najaz, bai, gerora nire izena gurtuko dutela eta agian erlijio guztietako sinestunak nirera etorriko direla esanez «konfundituak geunden». Bale. Ongi da. Hala izan bedi. Dogma bakarra eskatuko dizuet nire erlijioak izateko. «Ez diot inoiz ordenagailu bati kalterik egingo eta ahal dudana neurrian besteen erasoetatik babestuko dut». Eta kitto. Sexu zein alkoholaren aldetik nahi adina. Eta Vatikanoko berria Appel-Macintosh egoitzan. PCak eta Bill Gates eskomulguak gelditzen dira hemendik aurrera. Erran dut. ●

Leitza

Mendi Martxa zentral eolikoaren kontra

ABIADURA HANDIKO TRENAREN Aurkako Asanbladak Leitza kokatu ziren haize erroten aurkako lau orduko mendi ibilaldia antolatu du etzira Leitzan. Igande goizeko 10:30etan Ezkurako gainean elkartuko dira (Basa-Kabi jatetxearen parean) haize errota dau den mendietara abiatzeko. Protesta ibilaldia Leitzako eta Beruetekeko haize errota inguratuko ditu. Ekintza parte hartzen dutenak Zuparrobi eta Anitz mendietan dauden errotetaraino igoko dira. Ibilaldia arratsaldeko 5:00ak aldera bukatuko da Leitzako herriko plazan.

AHTren Aurkako Asanbladaren ustez, haize zentralak mendi eta mendilerroak industrializatzen dituzte eta hori salatu nahi du ekintzak.

Antolatzaileen iritziz, ustez «energia ekologiko eta alternatibo» bezala jaso ziren proiektuak energia iturri «gogor, zentralizatu eta monopolizatuak» bihurtzen ari dira.

Azkenik, antolatzaileek gogorarazi nahi dute proiektuok hegazti migratzaileengan duten eragin txarra eta haize errota eraikitzeak irekitako bideak mendira eramaten dituzten jendetzak. Hori guztia dela eta, oraindik egiteko dauden haize erroten proiektuak bertan behera uzteko eskatuko dute etzi.

→ Idoia Martinez-Barranco

Lizarra ●

XIX. mendeko etxeen margoa ezabatzen doa


Horrela baieztatu du Blanca eta Maria Jose Sagastik Alde Zaharreko koloreei buruz egindako lanak

LIZARRAKO ALDE ZAHARRA KOLorea galtzen ari da. Azken bederati urteotan eraikinen aurrealdeko margoen %55 ezabatu egin da. Horrela baieztatu du Blanca eta Maria Jose Lacalle ahizpek egindako *Kromatismoa Lizarrako Alde Zaharrean* lanak.

1989an Lizarrako Alde Zaharreko karraketan barna murgilduz gero, margoz eta kolorez apainduta zeuden 200 etxe inguru ikus zitezkeen. Egun, ordea, gaineztaduraz apaindutako 85 eraikin baino ez dira gelditzen. Beraz, denbora pasatu ahala, Lizarrako Alde Zaharrean dauden XIX. mendeko etxeen aitzinaldetako margoa desagertuz doa, azken bederati urteotan eraikinen aurrealdeko margoen %55 ezabatu egin baita. Nolanahi ere, eta ikuspuntu historiko eta artistiko batetik begiratuta, oro har, aparteko gertatzen da oraindik begirada altxatu eta hormetan dauden kolore anitzetako margoei so egitea.

Horixe da Blanca eta Maria Jose Sagastik Lacallek *Kromatismoa Lizarrako alde zaharrean* lanean atera duten ondorio nagusia.

Ikerleen erranetan, urteen poderioz, apainduta dauden etxeen aurrealdeak ezabatuz joan dira eta egun ere desagertzen ari dira. «Arazoa da aitzinaldean egiten diren zaharberritze lanetan ez dela kontuan hartzen margoen balioa. Hori dela eta, aurrealdean dauden elementu estrukturalak baino ez dituzte iraunarazten». Gau-



Lizarrako alde Zaharreko etxeetan, oraindik ere, kolore ederrak ikus daitezke.

● KRISTINA BERASAIN

zak horrela, orain arte kolorea mantendu den etxeetan desagertzeko arriskua da. Izan ere, kontserbazio lanak egiterakoan bigarren mailako arazotzat jotzen da. Hala ere, eta artelan horien iraupena bermatzeko, Etxe Barrua Zaindu eta Berritzeko Plan Berezia (PEFRI) lana burutzen duen taldeak ikerketaren ondorioak aintzakotzat hartu ditu eta gai horren inguruan arautegi berri bat egiten saiatzeko asmoa du.

Azterketan azpimarratu da garai horietan erabiltzen ziren koloreak gatzaren kaustikotasuna zela eta mugatuta zegoela eta beti olio eta fresko kareduna nahasten dituen teknikak erabiltzen ziren pintatzeko. Hala ere, koloreen

aniztasunari dagokionez, kolore aukera zabala erabiltzen zuten: okreak, lur berdeak, kromo eta kobaltoaren oxidotik ateratako berdeak, gorriak...

Azkenik, ikerketan gauza bitxi eta harrigarri baten berri ere ematen da. Lizarrako auzoetan apaindari modu ezberdinak erabiltzen ziren, egoera sozio-ekonomiko ezberdinen lekuko. Horrela, San Juan auzoan luxuzko aurrealdeak ikus daitezke; San Miguel eta San Pedro auzoetan, berriz, bestelako xehetasunak suma daitezke, han bizi zen jendearen erosketaren ahalmena txikiagoa izan zena- ren testigu.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Pantzo Irigarai eta 'Beherearta'

Herria astekariko azken zenbakiak Pantzo Irigarai idazleari tarte berezia eskaini dio bere orrialdeetan: «Donostiako hiriak eskaini antzerkisaria beretu du aurten Pantzo Irigarai, jazkoa Antton Lukuk beretu zuen bezala. Berriz ere Iparralde huntarat jin da beraz sari hori. Pantzo Irigarai biziki ezagutua da gure artean, dela irratilari kondu, dela preseski antzerkiaren mundu hortan egiten duen lan baliosaren gatik. Donostia saria ukan du beraz *Beherearta* antzerki berriari esker».

«Bainan zer da *Beherearta* hori? Milafrangako auzogune baten izena.

Baiona eta Donibane Garaziren artean ibiltzen den treinak bazuen hor bere geltoki bat. Batzuk erraiten zuten haatik treina gelditzen zela leku hortan bainan sekulan etzela nehor treinetik hor jausten edo trenerat hor igaiten...! Hori etzen arras egia bixtan da. Artetan, izaiten zer non edo nor treina toki hortan hartzen edo uzten zuena. Eta horra nun Beherearta izenak fama berri bat bildu behar duen Pantzo Irigarai asmatu baitu hor nunbait kokatzea bere antzerki berria».

«Ez dugu ixorioa hemen kondatuko.

Antzerkia ikusi beharko da xehetasun guzieren jakiteko. Noiz ikusten ahalko ote dugu? Pantzo Irigarai berak emaiten du galde horri arrapostu: 'Xirristi Mirristi taldeak emanen du eta apailueri ja plantatuak gira. Baina ez dugu antzerkia aise emanen helduden irail edo urria baino lehen. Dotzena bat jokalaririk hartzekoak dira, Baiona, Baigorri, Heleta eta Aiherrakoak besteak beste... Taula zuzendari berri bat badugu, Edi Nado, arrunt hortakoa dena, bera motaz katalana bainan euskalduntzen ari zaikuna. *Beherearta* agertuko denean, ez da huts egin beharko!».

Aralarko itxura berria

Zaharberitze lanak direla-eta bederatz hilabete itxirik egon ondoren, igandean irekiko da berriro santutegia

Aralarko Mikel Deunaren santutegia etzi irekiko da berriro. Euriak eta hezetasunak eragindako kalteak moldatzeko, bederatz hilabetez itxita egon da. Aurrerantzean bisitariak eraikinaren itxura berriuz gozatzeko aukera izanen du.

NAFARROAKO ELIZARIK zaharrena euriak mendean hartua zuen duela bederatz hilabete. Aralar mendian, 1.235 metroan den santutegiaren pareta eta oholza oso egoera txarrean zeuden hezetasuna dela medio. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuko Principe de Viana erakundeak egindako zaharberitze lanen ondorioz, itaxurak eta ur iragazpenak ez dira gehiago mehatxu izanen aurrerantzean. Santutegiko zaharberitze lanaz Iruñeko Zubillaga enpresa arduratu da, Javier Sancho Principe de Vianako Arkitekturen Ondareko buruaren gidaritzapean. Lanak joan den astean bukatu zituzten baina oraindik ere bada mugimendua elizan. Egunotan haritzez egindako solairu berriari




Mikel Deunaren elizako erretaula esmaltatua.
LUIS AZANZA

emandako berniza eta argizaria lehortzen ari den bitartean, santutegian bizi direnek azken bederatz hilabetean zirrikitu guztietan pilatutako hautsa eta zikinkeria garbitzen dihardute.

Orain txukun dagoen arren, Aralarko eliza oso egoera kaskarrean zegoen. Hori ikusirik, zaharberitze lan sakon bat egiteko asmoarekin, joan den ekainean itxi zituen atea. Tarte luzean itxura berria hartu du Mikel Deunaren tenpluak. Principe de Viana erakundeak 80 milioi pezeta erabili ditu Aralarko Mikel Deunaren eliza zaharberitzeko lanetan (320.000 libera). Eraikinari tellatu berria egin diote, usteldua zegoen oholza aldatu dute, berogailua jarri da eta elektrizitate sarea ere berritu da.

Mike Deunaren




Araoz gehien tellatuak

Nork eralki zuen eta noiztat oraindik jakin ez diren arren, balio handiko ermita da Aralarkoa. Kondairak dioenez, Teodosiok eralkia izan liteke eliza. Jakina denez, gazteari gezurretan etorri zitzaizkion emaztea ohean beste batekin zegoela esanez, eta Teodosiok, sinetsita, bere gurasoak hil

zituen. Eliza altxatzean, Teodosiok ordaina bete omen zuen. Hala ere, jakin badakite noizkoa den. Absidea IX. mendekoa du. Elizaren gainontzekoa, historia joan ahala aldaketak izan dituen arren, XII. mendean eraikitako hiru nabek osatzen dute. Nolanahi ere, hezetasunagatik hainbeste historia gordetzen duen eliza hilzorian egon da. Inocencio

Aierbe santutegiko parroko eta zaindariaren iritziz, arazoa tellatutik sortu zen. Ondorioz, horrek eman du lan gehien moldaketak egiteko garaian. Aierbek gogoratu duenez, duela sei-zazpi urte berritu zuten tellatua. Nombait, ez zuten ongi egin, berehala itxurak eta ura sartzen hasi baitzen. Gainera, lanak egiten ari zire bitartean estali gabe utzi zuten eta orduan botatako euriak barrualdea asko busti zuen. Hori guztia aski ez zela, orduan zinbez egindako tellatua harrizkoaz ordezkatu zuten. Gerotik paretak eta oholzak ura hartzen hasi ziren. Hezetasunak zuraje guztia usteldu zuten eta paretak erabat belztu zituen. Egindako lanek agerian utzi dute hori.

Tellatuak eman die lan gehien, asko zegoelako kendu beharra. Tellatua eta bobedaren artean sastarra pilatua aurkitu dute —inocencio dioenez 40 kamioi ateratu dituzte—. Horrek ere hezetasun gune finkoa sortu zuen, bereganatu egiten baitzuten. Orain tellatua beste modu batean jarri dute. Estali dute porlanek eta poluretanoz, eta bobedaren gainean beste tellatu bat egin dute. Aldi berain, tellatuaren eta bobedaren artean geratu den tarte hutsik utzi dute, haizea ibiltzeko eta bidenabar aireztatzeko.



Santutegi barruko hezetasun gehiena desagertu da zaharberitze lanekin.
LUIS AZANZA

Sakristia eta elizaren aurreko bularrak edo absidea dira hezetasunaz libratu diren zati bakarrak.

Kanpoko aldean, berri, ez dira nabari elizak barrutik izan dituen aldaketak. Tellatu berria egin eta gero, gainean zituen harrizko tella berak jarri dituzte, ongi garbitu ondoren noski.

Iparraldetik eliza sendotzen duten lau kontrafuerteak ere moldatu dituzte, lehertzen hasiak zirelako. Hori dela eta, kendu eta berritu egin dituzte. Bestalde, elizaren zimborioari estalki berria jarri zaio, eguzki plaka bat eta tximistorratza.

Hezetasuna eta aireztatzearen arazoak

Mikel Deunaren elizaren arazorik larriena hezetasuna izan da beti. Gainera, Aralar gaineko eguraldi gogorak eta santutegia itxia izateak areagotu egin dute gaitza. Eliza asko lehertu den arren, oraindik badira hezetasunaren aztarnak. Lehoak alabastroz eginak daude, ezin dira zabaldu, eta horrek barrualdea aireztatzeko aukerak asko murrizten ditu.

Parrokoak dioenez, hego-halzea zebile-nean atea zabaltzen zituzten lehertzeko, baino ez da izan aski. Orain oholzaren azpian jarri dioten berogailuak nola erantzuten duen ikusi beharko da. Javier Sancho, zaharberitze prozesuaren arduradunaren aburuz, urteak beharko dira eliza erabat lehertzeko. «Hezetasuna zen arazoa eta egin ditugun moldaketek ez dute gehiago euria sartzen utziko. Eliza pixkanaka lehertuko da. Dena den, urteak beharko dira erabat idortzeko, prozesua motela delako. Orain badu berogailua eta horrek lagunduko du lehertzen, baina, betiere, bertako eguraldi hezeak uzten dion heinean».

Berogailuak beste berotasun bat emanen dio orain arte oso hotza zen elizari. Goxotasun horretan lagunduko du elektrizitate sare berriari esker jarri diren argiak ere. Ilun samarra zen eliza, eta orain argiagoa da, Sancho arkitektoak ez baitu aintzat hartu eliza erromanikoek gogoeta eta errezurako lumenak eta goibelak izan behar zutelako irizpidea.

Horrela, aurrerantzean bisitariak santutegiko altxor preziatuena, aldairen dagoen erretaula, hobekiago miresteko aukera izanen du. Europako erretaula esmalteztatuen artean garrantzitsuenetakoa da. Adituek non eta noiz egina den ados jarri ez arren, uste da XII. mendekoa dela, eta Garcia Ramirez errege nafarrek ekarri zuela Gurutzadetan. Erretaula ongi ikusuten da inguru berrituaren, eta, Inocencioen ustez, berogailuak kalte baino mesede gehiago egingen dio. Hezetasunak herdolla sorrarazi zion eta Erik Beigikarra-k 1979an egindako lapurretaren artean sastarra pilatua aurkitu dute —inocencio dioenez 40 kamioi ateratu dituzte—. Horrek ere hezetasun gune finkoa sortu zuen, bereganatu egiten baitzuten. Orain tellatua beste modu batean jarri dute. Estali dute porlanek eta poluretanoz, eta bobedaren gainean beste tellatu bat egin dute. Aldi berain, tellatuaren eta bobedaren artean geratu den tarte hutsik utzi dute, haizea ibiltzeko eta bidenabar aireztatzeko.

Irene Arrizurieta

Inocencio Aierbe

Aralarko erretorea eta zaindaria

«Nik uste askoz hobekiago egonen garela»

INOCENCIO AIERBEK BERROGETA hamabi urte daramatza Aralarren bizitzen. Urak eta itaxurak kasik menderatu zuten eliza zaharberritua eta lehortua ikustek uste animo bat eman dio. Arakil Uhartekoa da, eta euskaraz seminarioan ikasi zuen. Hamaika ikusia, bertan jarratu nahi du lanean «Jainkoak nahi duen arte».

Etorri lasaiko, urteak emandako ustekabeek bakarti bihurtu dute Aralarko Mikel Deunaren elizan bizi den erretorea. Dena den, suelto uzten du bisitari

eliza ikusten, eta gustura aritzen da behar diren azalpenak ematen. Hori bai, ez dio inori uzten bere argazkirik ateratzen.

■ **Berrogeta hamabi urte daramazu Aralarren bizitzen. Asko aldatu da zu etorri sinenetik?**

Asko. Alde guztietara asko. Etorri nintzenezan ez zegoen ostaturik. Gauden etxe hau berria da. Ez zegoen tokirik eta oso gaizki ibiltzen ginen jendea hartzeko. Orain baino jende gutxiago etortzen zen, ez zegoen errepiderik, eta oinez igo behar izaten

zuten. Etortzen ziren mendigoizaleak, gazteak eta San Migel asko maite zutenak.

■ **Elizan egindako lanekin gustura gelditu sara?**

Oraindik ez dugu eliza probatu eta ez gara elizkizunak egitera joan. Dudatan nago baina pentsatzen dut etzi hasiko garela. Nik uste askoz hobekiago egonen garela. Lehen elizara joaten ginean hark hozkailua ematen zuen. Hotz eta hezetasun handia izaten genuen. Orain berogailuarekin beste giro bat egonen dela uste dut.

■ **Hainbeste urte Aralarren, hainbat istorio bizi izanen dituzu.**

Ez pentsa. Hemen bizi oso xumea da. Gure lana etortzen den jendea hartzea da. Abegi ona eman, hartu eta halekin egon.

■ **Zertara dator bisitaria?**

Gehienak, mendira joateko. Debozioz lehenagoko zaharrak kasurik egin. Apezpikuari ere bidali nion karta. Mutur ilunak jarri zitxidaten baina besterik ez. Gerotik, hor dago lanean. Lan ona egiten duela uste dut nik. Paratu zuten antena honi

eskem ahal dute Iruñeko herrietan Euska.

■ **Leire izan dituzue herria?**

Ba da niretzat gauzarik eta garrantziena. Errenguten eguna. Ez nuen eramango zutenik. Handia da eta pisu askarrak izan zirelako irudiak giltzeko artuak daude eta baina ateratu egin zituzten bitik eta eramanez geroz genituen ikusi eta, parra-k esan zuen bezat ez. Hark aldizkari izan zuen guk leho bat gurela beraiak

sartzeko, eta elizaren leihoak itxiak dira. Niretzat oso gogorra izan zen. Nire izaera ere aldatu egin zela uste dut. Lehen oso gustura ibiltzen nintzen jendearekin, baina harrezkeraz atzeratu nintzen asko. Ez dut hori gaintzen. Oraindik ere nahiago dut bakarrak egon jendearekin baino. Beti gelditzen zaizu erruduntasun kompleksua, balio handikoa baita.

■ **Zer asmo dituzu aurrerantzean?**

Jainkoak nahi duen arte hemen egon. Pozik bizi naiz hemen. Jendearekin baino nahiago dut bakarrak egon. Gogoko dut hemengo isiltasuna eta giroa.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

XVIII. mendeko hiztegegile ahaztu bat: Jose Arakistain (I)

Era askotakoak ziren izkiriatu zituenak, euskaraz zein erderaz, eta asko dira, tamalez, galdu direnak ere, esaterako, San Juan Gurutzekoaren lanen egin zituen iruzkinak



Ez da luze higatu Julen Urkizak zuzendu *Karmel Sorta* bilduman Zuzaetaren eta Arakistainen euskal lanak argira elki zirenekoa. Egia esan, ateo setatia naizen hau aspaldian nembilen *Karmel* aldizkariaren zuzendaria ere den Julen Urkiza Txakartegi ondarrutarrari nire miresmena zein eskerronak eginiko lanengatik aitortzeko irrikitan. Antonio Unzueta eta Fratzisko Ondarrak apaillatu eta ihazkoan argitara emanikoan arras atzundurik joan zaigun egile baten lanak bada tozkigu. Jose Antonio Arakistainek ondu zituenak alegia - bakaikuttarrak paratu Zuzaetaren sermoiez ihardutea beste baterako utzi behar ko-

Xeha ditzagun bada bizi ezpalak, Jose Antonio Arakistain Azpillaga nor zitzaigun hobekiro jakitearren. 1700.eko ekainaren lehenean jaio zen Deba aldeko Itziarren. Aita Frantzisko Arakistain Albizuri, Itziarkoa zuen, egun eraisita dagoen Arakistain etxekoa, eta ama Maria Azpillaga Zigarana, berri, Lasturrekoa, Arrasketa baserrikoa. Premutza zitzaion Jose Antonioren, eta horrek berebiziko esanahia eransten dio erlijioso sartzeko gazte hartu zuen erabaki irmo sendoari. Karmengo abitua 1718.ean Iruñean hartu zuen, bere bizitza osoan zehar askotan eta luze egokituko zitzaion bizitokian hain zuzen ere, eta Jesus-Mariaren aukeratu zuen karmel izen berria. Filosofia eta teologia ikasketak 1729. urte bitartean burutu zituen. Logroñon eta Iruñean hurrenez hurren, eta teologia irakasle ihardun zuen berleketan 1732-1735. eta 1735-1748. urtebulta bietan hurrenkera berean. Irakasle goa utzirik, 1748.etik gora handiko ardurarak egokitu



zizkieten: Logroñoko etxeko erretorea, Burgoskoaren priora, Indietako definidore nagusia, eta Nafarroako San Joakingo probintzia-burua. 1764.eko azaroaren 29an, Logroñon zendu zen.

Era askotakoak ziren izkiriatu zituenak, euskaraz zein erderaz, eta asko dira, tamalez, galdu direnak ere, esaterako, San Juan Gurutzekoaren lanen egin zituen iruzkinak. Sorterriko ama birjanari zion debozioak eraginda lan sendoa utzi zigun, bere momentuan argitara eman ez bazen ere. Arakistainek utzitako paperak moldatuz, berri, Debako apezak, Pedro Jose Aldazabal Murgiak honakoa atera zuen, beti ere, Arakistainena, bere izenaren beraren aurretik ezarriaz: *Breve historia de la aparición del más luminoso astro y brillante estrella de mar, la milagrosa imagen de Maria Santísima de Izlar, singularísima protectora de los navegantes, con algunos de sus prodigios, sacados de los escritos que acerca de esta imagen dejó el M.R.P. frai Joseph de Jesus Maria y Arakistain*. Unzueta dioenaren arabera, lan honetan irakur daiteken Arakistainen ekarria mirarien kontakizunei dago kien dugu. Agertzen diren bertsoak ere Arakistainenetzat jo litezke: «Agur Iziarco / Virgina ederra / Agur ama maite / Ichasoco izarra. Cautivoac ascatu / itsuac arguitu / Onak eman eta / Gaitzac quendu itzazu. Quendu eguitz-

gutzu arren / Gure miseriac / Baita baqueatu / Guerra gaiz guttiac».

Bertsorako landuzko sena zukeen Arakistainek, hauek ezezik, Larramendiri egin zizkion bertsoak ere baititugu. Egia esan, Arakistain

euskal literaturan ezaguna izan bada, zeharka bada ere, Larramendiren hiztegirako ondu zituen emendakinengatik izan da, ez besterik. Fidel Fita izan zen -noiz, eta nork, eman ahal izanen du Catalunyako josulagun honen berri argitara?- ilunpetik eta ezagutzera 1880.ean eman zituena, eta geroxeago ere. Azkuek bere *Euskaltzale*-n eta Karmelo Etxegaraik goratu zuten Itziarko grazia: «Fue muy celoso investigador, conoedor profundo del vascuence, que manejaba con admirable dominio, infatigable en registrar voces ignoradas de esa lengua milenaria».

Larramendik bere hiztegia atera zuenean, Arakistainek gutun bat igorri zion Andoaingoari -Iruñean 1746.eko abuztuaren 15ean dataturik-balizko hurrengo argitalpen batean, kontutan hartu beharreko zenbait aholkuekin, esate baterako, hitz guztiak zein euskalkietatik hartuak izan ziren esatea edota erdera-euskara hurrenkera erabili beharrean euskara-erdera erabiltzea, erderaz ordekorik ez duten euskarazko hainbat esatera kanpoan gera ez zitezen -aholku ederra izaba aldeko baten-batentzat, baina berandu iritsitakoa nonbait-. Ez ziren bakarrik egin beharrekoak igorri zizkionak, ordea, eta laudoriozko hitzak esan zizkion umil eta apal, zinez eta bihotzez, aurrerantzean josulagunak egoki baldin bazeritzaion, elkar lankidetzarako bere burua aurkeztuz.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Done Mitxel eta Santa Ibonetxu

IZUGARRI POZTEN NAIZ, mundu gero eta zuriago honetan, inoizka jainko gizen du horietakoren bati labankazoka hasteko grazirik baduen jende sana gure artean oraindik badela ikustean. Izugarri poztzen naiz bai, eta halaxe egin naiz Ramon Ugaldek atzeneko

Ostielal-n gure Koldo Mitxelenaren arimari sartu dizkion orratzak sentitzean.

Funtzionarioak beste bertso laririk gabe gelditu gara, gaurgero baten batek atera zizkion bestela, behiala Iturengo Arotzari bezalatsu:

San Mitxelena ere,
nahiz askok ez jakin:
sutu beharra dago
bere animakin;
errautsak gorritzeko
gihar finarekin,
ta hezur sano hutsez
joale mihiak egin.

Toki ederrean, gure osasuna, halatsukorik sortzeko. Ezta burutik pasa ere inori. Hemen guziok, gero borondaterik onenaz, Euskal Herria sortzen ari baikara, zea, zintzo zintzo. Egia sanorik kuida ordea. Hala gizentzen zaizkigu Jainkoak oharkabean. Eta nork sartu labana gero? Eta nork harrapatu bihotza, larrupeko gantzak hainbeste loditu ondoren?

Hala dio Ramonek, beste gauza eder askoren artean, Mitxelena Santuaz: «Eta bere kaotismoaren jatorria bere honestitate gabezia balego? Hau da, lantzen zituen gaiak ez zituelako ondo menperatzen. Bere hagiografoei frogatxo bat jarriko nieke:

Lenguas y protolenguas irakurri arazi eta gero ahozko azterketa egin araztea».

Endrikito, Ibonetxu, eta Mediterraneoko eguzkitan muinak urrutako beste asko ditu miresle eta hagiografo San Mitxelenak, hori gauza jakina da. Orain berriro, larri sumatzen nuen Ibonetxu, bere buruari galdezka: «nork zuzendu euskaldun inozente kaskagorrok?» San Mitxelena hil zenetik, alegia.

Hitzegiteko modua da, guzia. «Ni naiz, gauza naizen bakarra»

esan nahi zuen nonbait. Eta horregatik atera du liburu bat, Europako hiztegi txar guziak xalagardatuz apaindua. Euskara kontuan ez baita, gizajoa, beste-tako gauza. Horregatik ematen dit pena, bere mugak gizatasunez onartu gabe, guzien gainetik oilarturik halako maisu aire batekin ateratzen den bakoitzean, eta mundu guziak badaki, igoaltzu ateratzen dela beti.

Mitxelenaz gauza asko esan baliteke, haren arimaren zaindaria gelditu zaigun donoxtiar kaxkarin katalandu (= marikundu, gogoz esan nahi nuke, ez sexuz, bereizterik balego) honetaz zer esan? Ni ez naiz hasiko denak esaten, baina, axaleko ohar bi egin bai, nahi dituenak barren-du:

A) Euskarana, nola sortze hala ikertze lanetan, hutsaren hurrengo da Ibonetxuk egindakoa, eta tajuzko kontu berriak esaten ez duena gehiena. Ez da harritzeko ere. Ibonetxu euskaltzain izanarren, ez baita euskaldun, euskararen kontutik bizi den espainola baizik; ordu erdiz euskaraz hizketan aditzea aski.

B) Bere firmaz edo izen hutsaz baliatuz, bere aurreko euskaldun jator zintzo askok musutruk egindako lan ikaragarria, diru publikoz informatizatu eta disekatu ondoren, bere poltserako diru iturri zikin bihurtzen ari den euskaltzainik ijitoena Ibonetxu izanen da. Eta halare, eguneroko ogia zor digun euskaldunok, esker gaiztoa erakutsiz maisu ustekoen buria harrokkaz pagatzen gaitu beti.

Eta badut motiburik aski, esan ditudan egi ederrok eta gehiago esateko. Gure alderdi on guziak isilduz aprobetxatu, eta txar ustekoak txuleria erabateko astakeria salgarri bihurtzen besterik ez dakienak ez baitu gutxiagorik merezi. Euskaldun seneoak, Bidasoaz haruzkoak barren, bai baitaki

imprimatze hutsa baino euskarago izanen dela beti *inprentako hutsa*, baina Ibonetxuk sekulan ez du ikasiko, Europako hiztegi txar guziak lardaxkatu arren.

Ziria

Motxorrosolo

Jokorik ez

PENTSATZEN HASIZ GERO, GUZTIZ KOMENIGARRIA IZAN DAITEKE UPNk proposatzen duen Konstituzioaren aldaketa; ez litzateke lehenbizikoa izanen, Europa zela-eta zenbait egokitzapen egin baitziren. UPNren sorrera agiriko arrazoak nagusiari kasu egiteak bidea zabalik utz dezake bestelako ekinbideetarako, besteak beste era guzietako mugak desagertaraziko dituen ekinbiderako.

Marta Mendia

Altuera jauzilaria

«Finalera pasatzeko helburuarekin aterako naiz»

Marta Mendiak altuera jauziko Espainiako errekor berria ezarri zuen joan den asteazkenean zortzi Genoaan. Ibargoitzi-Getzeko atletaren helburua, orain, gaur Valentzian hasiko den Europako txapelketa da. Mendiak igandeko finalean ikusi nahi du bere burua, eta gero gerokoak.

EGUNEROKO ENTRENAMENDUA hasi baino lehen aritu zen berriketan Marta. Muztio bat hartu bidenabar, txapelketetan gaintu behar izaten duen listola ez ezik, grabagailuari ere aurre egiten badakielia frogatu zuen.

■ **Pista estalian Espainiako altuera jauziko marka ondu duzu. Ezustekoa izan da?**

Pista estalian nahiko ongi ateratu zitzazkidan sailkapen probak. Europara joateko gutxieneko markaren atzetik (1,88) nabilen. Egin nezakeela uste nuen, nituen aukeren barruan zegoen, baina joan den egunean Genoaan proba egiten hasi baino lehen, Federaziokoek Europako Txapelketara eramanez nindutela esan zidaten. Egun horretan 1,88 saltatu nuen eta gero 1,90; beraz, bi aldiz marka egin nuen proba berean. Ez nuen espero, baina guztia uste baino hobekiago ateratu zen.

■ **Eta gaur zer?**

Gaur, bihar eta etzi Europako Txapelketa daukat Valentzian. Finalera hamabi pasatzen dira eta gaur izanen ditut klasifikazio probak. Finalera pasatzeko helburuarekin aterako naiz. Hori lortuz gero, pozik geldituko nintzateke. Finalera pasatuz gero, batek daki. Ez dakit lortutako marka gaintutako dudana, joan den astean 1,92 gaintutuzen saiatu nintzen eta nahiko ongi ikusi nuen neure burua. Lehenengo saioa ona izan zen. Dena den, altuera jauzian oso garrantzitsua da egun egokia izatea. Egun aproposa izanez gero, ateratzen zaizu jauzia.

■ **Orain dena laudorioak dira. Baina gora iristeko behetik hasi behar da.**

Bai, marka ez da hutsetik lortutako zerbait. Kostatutakoa da. Gogorrena Bilbon astean bakarrik entrenatu behar izatea da. Klasetik atera eta entrenatzera joan behar izaten dut, eguraldi ona edo txarra izan, eta horregatik gogorra egiten da. Bestalde,



OSKAR MONTERO

pisua gehiago kontrolatu behar nuke eta ez dut egiten. Altuera jauzian gabiltzanontzat esaten dute kilo bakoitza bi zentimetro eta erdi direla. Ez du matematikoki funtzionatzen, baina zenbat eta gutxiago pisatu, kilo gutxiago goratu behar da, eta txapelketetan igarri egiten da. Bilbon gehiago zaintzen dut pisua, baina asteburuetan ez dut erreparatzen. Amak gustuko dudana prestatzen dit, eta ongi jatea asko gustatzen zaidanez... Dena

den, nik ez dut bizimodua aldatu. Txapelketa dudana asteburuetan ez naiz ateratzen, eta etxean lasai aski egoten naiz. Baina lehiaketarik ez dudanean, lagunekin irtetzen naiz, beste edozein bezala.

■ **Nolako da egun bat zuretzat?**

Burlatan nagoenean ez, baina Bilbon ordutegiak asko aldatzen dira. Klasea badut, unibertsitate-ra joateko ozta-ozta jaiki eta 14:00ak arte klasean egoten

soslaia

Metro bat eta hirugogei hamabost zentimetro neurtzen du, eta 59 kilo pisatzen ditu Marta Mendiak. Ibargoitzi-Getzekoa da, baina txikitatik Burlatan bizi da. Bederatzi urterekin hasi zen kirola

egiten. Hasieran denetarik egiten zuen: lasterka, martxa... Berak baino ezaugarri hobeak zituztenak baziren arren, altuera jauzia aukeratu zuen, eta asmatu, asmatu zuen, orainoz behintzat oso goi dagoelako.

•

Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean Arte Ederretako azken kurtsua ikasten ari da, ikus-entzunezkoen adarrean. Raul Gonzalez du entrenatzaile. Europako pista estaliako txapelketara ez ezik, udan egiten den pista irekikora ere joan nahi du. Espainiako errekorra ere (1,89) gaintutuz nahi du.

•

Baina guztia ez da kirola eta ikastea.

Oso herrizulo da, eta ahal duen guztietan Getzera egiten du eskapo lagunekin egoteko. Gustuko du oso lagunekin ateratzea, eta nohizean behin gitarra jo eta abestea. Ez du etorkizunean gehiegi pentsatu nahi. Ikasketak bukatzean lana aurkitzen hasteak beldurra ematen dio. Orainoz ikasten jarraitu nahi luke, altuera jauziarekin hobekiago tartekatuz dezakeelako.

naiz. Bazkaldu eta berriro klase-ra bueltatzen naiz, 17:30ak arte. Asteartean Leioako gimnasioa joaten naiz pisuak egitera, eta beste egunetan pista aritzen naiz. Nire egunerokoa entrenamendua eta Arte Ederretako ikasketak dira.

■ **Noiz joko duzu goia?**

Ez dakit. Duela urte batzuk ez nuen pentsatu ere egiten orain saltatu dudana saltatuko nukeenik. Orain ez dakit. Ilusio handiarekin entrenatzen jarraituko dut, eta etorkizunak esanen du.

■ **Altuera jauzilari baten ohiko ezaugarriak ez dituzun arren, zure markak hobetuz joan zara. Zein da zure ezaugarriarik hoberena?**

Jauzilari egoki batek nik baino altuera handiagoa izan beharko luke, eta finagoa izan. Abiadura ere oso garrantzitsua da: zenbat eta azkarrago sartu, gehiago eusten diozu. Arazoa da abiadurak eta sarrera onak irautea. Burua ere hotz eduki behar duzu; kontuan izan behar da txapelketetan, beste batzuekin lehiatzeaz gain, listola duzula aurrean. Esan daiteke, orokorrean, teknika ona dudala. Gehien kostatzen zaidana da listola iragaita.

■ **Atletismoaren egoera ona da Nafarroan?**

Joan den urteaz geroztik nahiko ongi dago eta oso jende ona dabil. Malla nahiko ona da. Mutiletan ongi dabilta Carlos Esparza eta Inigo Monreal lasterkariak. Nesketan ere badira: Rita Lora diskoan, Idola Mariezkurrena txabalinan, Ana Linares 200 metroetako lasterketan eta ni neu. Txikia den hiri batentzat emaitza onak lortu ditugu.

■ **Laguntzak eskuratzen dituzu?**

Ez naiz kexatzen. Laguntza bat Nafarroako Gobernuak ematen dit, eta bestea Espainiako Federazioak. Gobernuari kirol-instalazioak eta materiala eskatu behar zaizkio. Hori da faltan sumatu dudana. Instalazioak ez dira estaliak, eta eguraldi txarra egiten duenean, ezin zara gustura entrenatu. Nafarroako atletek behar dute toki estaliren bat eguneroko behar bezala entrenatzeko. Orain Larrabiden kiroldegi berria egiten hastekoak dira. Gutaz oroitzea espero dut.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Konspirazioaz

MONTESQUIEUK ERRANA DAKIGU demokrazian batzuek legeak egiten dituztela, berte batzuk administrazioaren zuzendaritzaz arduratzen direla eta hirugarren taldekoek legeak betearaztea dutela helburu. Hiru zutabe horien arteko independentzia omen da demokraziaren ezinbertzeko ezaugarria.

Esperientziak errana dakigu, ordea, teoriatik praktikara alde handia dagoela. Izan ere, gehiengotan hiru botereak espiritu santua bezalakoak dira: hirurak, bat.

Azken urteotako teoria berri batek zutabeak ez hiru baizik eta lau direla argitu digu, aipatuei komunikabideak gehitu behar zaizkielako. Orduz geroztik, kazetaria ez da albisteak bildu, sailkatu, kontatu eta aztertzen dituena, maila handiagoa lorturik, laugarren boterearen kide baita, berteak kontrolatzeko eta gizartearen zerbitzurako sorturikoa. Salbatzailea.

Fakultateetan betiko matrakarekin segitzen dute: kazetaria independentea da, beti egia eta gizartearen zerbitzua du helburu, inork ezin dio komunikabideen askatasunari eraso... Profesioan hilabete batzuk aski dira erredakziorik inoiz ezagutu gabeko irakasle horien sinesgarritasun falta egiatzatu eta teoria eta errealtatearen arteko aldea handitzen ari dela frogatzeko. Karrera praktikagoa egin nahi badute, Anson har dezatela irakasle konspirazioaz mintzatzeko.

Oso ezaguna da azken egunetan gogoratu dudana gertaera bat, Kazetaritzako ikasleei kontatu ohi zaiona: gazte bat Madrila joan eta han egunkari batean hasten da lanean. Familiaren ezagun batekin topo egin kalean eta zertan dabilen galdetzean hauxe erantzuten dio:

— Kazetaria naiz, baina amari putetxe batean pianoa jotzen dudala erran diot. Ba, hori, bertzerik ez.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gayarre antzokian. Besteak beste, Brahmsen eta Haydnen lanak joko ditu.
- **Iruñea:** Revolver taldeak joko du datorren asteazkenean, 21:00etan, Gayarre antzokian.
- **Alzain:** Parafunk eta Dj Javi Pez taldeek kontzertua emango dute gaur, 23:00etan, Arsaia aretoan.
- **Gares:** Soziedad Alkoholikak eta Betegarrik kontzertua eskainiko dute bihar, 23:00etan, Fundamental aretoan.
- **Burlata:** Insania taldeak joko du Black Rose tabernan heldu den asteartean, 20:30etan.

ANTZERKIA

- **Barañain:** Pasadas las 4 taldeak *Baby boom en el paraíso* antzezlan taularatuko du datorren ostegunean, 19:30etan, udaletxeko erabileraren aretoan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauaren barruan, *Vallace & Gromit* emango da gaur Golem zinematokian, 20:00etan. Sarrerak 450 pezeta balio du.

ERASKUSKETAK

- **Zangoza:** *Pensamiento Navararren 100 urteko historia* Javier Maria Pascualen omenez egindako erakusketa zabalik dago Kultur Etxean, martxoaren 8ra arte.
- **Zizur Nagusia:** Joaquin Ahechuren argazkiak ikusteko aukera dago, heldu den martxoaren 8a arte.

- **Iruñea:** Argako plan integralaren erakusketa zabalik dago Juslarrocha kultur aretoan.

BESTELAKOAK

- **Azagra:** Juan Ramon Corpas Mauleon poeta eta medikuak mitologiaren hitz eginen du gaur, 21:00etan.
- **Iruñea:** Arrosadiako Erakundearen Koordinadorak Zuhaitz Eguna antolatu du biharko. Elkarrekin txistor jatea egingen du Ilargienean, 11:00etan.
- **Gartzain:** Bertso afaria dago bihar, 21:00etan: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.
- **Iruñea:** Matias Salazarrek J'rrik Mgoun (Marokoko

Atlasak) mendira egindako ibilaldiko diapositibak erakutsiko ditu gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkartearen.

- **Iruñea:** Carlos Thiebaut filosofoa katedradunak *Jasan, toleratu eta banatu* hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Iruñeko Kutxan (Armada etorbidea 2).

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Greziako mitologiaren arabera, munduaren sortzailea zazpigarren egunean betiko loak hartua da, hau da, herioak. Tradizio hebraitarrean, berriz, lo-kuluxka batek. Bata zin bestea izanda ere, oraino lotan da.



DJABOLO
altzariek dute errua
Jainkoa luzekor,
baina ez atzenkor